

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TABERNAN ETA KAFETEGIAN SISTEMA INFORMATIKOAK ERABILTZEA	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0257		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Jatetxe-arloa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak.	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Taberna-kafetegiaren kudeaketa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Taberna eta kafetegiko jarduera ekonomikoaren kontrola	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1050_2: TABERNA-KAFETEGIA KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB7 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Taberna-kafetegia kudeatzeko ekipo eta programa informatikoak bereiztea era erabiltzea.

EI1.1 Baliabide informatiko beharrak taberna-kafetegiko jarduerarekin erlazionatzea.

EI1.2 Taberna-kafetegiaren eta erabiltzaileen kudeaketarako oinarriko prozedurak eta funtzioak identifikatzea.

EI1.3 Aplikazio informatikoak zehaztutako espezifikazioei jarraikiz instalatzea eta erabiltzea.

EI1.4 Taberna-kafetegiko jarduerarako informazio-iturri gisa eta merkaturatzeko bide gisa Internetek dituen funtzioak identifikatzea.

Edukiak

1. Taberna-kafetegiko sistema informatikoen kudeaketa:

- o Taberna-kafetegirako aplikazio informatikoak. Taberna-kafetegiaren kudeaketarako ekipo eta programa informatikoak.
- o Taberna-kafetegiaren kudeaketako aplikazio informatikoak instalatzea eta erabiltzea.
- o Bezeroen datu-base informatizatuak. Egokitasuna eta erabilera.
- o Kalkulu-orriak. Egokitasuna eta erabilera.

2. Internet taberna-kafetegiko jarduerarako informazio-iturri gisa eta merkaturatzeko bide gisa.

- o Sarrera.
- o Historia. Internet Espainian.
- o Kontzeptuak eta definizioak.
- o Internet nola funtzionatzen duen. Nola konektatu.
- o Interneteko zerbitzuak,
- o Posta elektronikoa.
- o Bilatzaileak eta atariak.
- o Internet elikagai- eta edari-hornitzaile gisa.
- o Mailinga merkataritza-teknika gisa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Tabernako eta kafetegiko zerbitzuak.